



JANGELA ZERBITZUA: JANGELAKO BARNE ARAUDIA

Ikastetxeak bere ikasleei eskaintzen dien zerbitzua da. Jangela zerbitzua baliatzeko beti 1. Zikloko ikaslegoak lehentasuna izango du eta hortik aurrera honako lehentasun hauek izan behar dira kontuan:

1. Garraio eskubidea duten ikasleak.
2. Jangelarako beka duten ikasleak.
3. Institututik urruti samar bizi diren ikasleak.
4. Beren borondatez aukeratzen duten ikasleak.

Zerbitzu horrek, dieta orekatua emateaz gain, elkarbizitza giroan hezi nahi ditu ikasleak.

Jangelako monitoreak heziketa prozesuko partaide dira, eta otordu eta gizarte-ohitura egokiak irakasten laguntzen dute.

Jangelan, heziketarako gunea den neurrian, **Institutuko Araudia** erabiliko da. Zerbitzu hori behar bezala baliatu ez, edo jarrera desegokia erakusten duten ikasleak, zerbitzu horretatik kanpo gera daitezke behin betiko.

JANGELAKO BARNE ARAUDIA

1. Jangelako Zerbitzua Koldo Mitxelena Institutuan eskaintzen diren zerbitzuetako bat da; beraz, dagozkion xede guztietarako, Institutuko beste edozein ekintzari ematen zaion trataera bera emango zaio horri ere. Jangelarako araudi hori egiteko eta ezartzeko garaian, ildoak Koldo Mitxelena Institutuko helburu eta araudi zehatzek markatuko dituzte.
2. Araudi horren helburu nagusia da Jangelako Zerbitzuaren erabiltzaileen eta bertako langileen eskubideak babestea eta betebeharrak finkatzea.
3. Beste helburuetako bat izango da Jangelako Zerbitzuko erabiltzaileen ohiturak eta portaerak hobetzea.
4. Jangelako Zerbitzua aukerakoa da, ez da inor behartuta geldituko. Izena ematen duenak Barne-araudia ezagutzen eta onartzen duela adierazten du. Horretarako, zerbitzuaren erabiltzaileak eta gurasoek edo tutoreak araudia hitzez hitz onartzen dutela sinatuko dute.
5. Sukaldarien eta zaintzaileen betebeharra izango da dituzten bitartekoekin zerbitzu egokia eskaintzea.
 - 5.1. **Sukaldeko langileen lana** dagokion lan hitzarmenak arautuko du.
 - 5.2. **Zaintzaileek egin beharreko lanak** haien enpresak eta Institutuak adostutakoak izango dira. Horien artean, honako hauek:
 - 5.2.1. Jangelako sarrera kontrolatzea; batez ere, ikasleen garbitasuna.
 - 5.2.2. Barne-araudi hau betearaztea ikasleei.



- 5.2.3. Kanpora ateratzeko baimena ematea ikasleei, bazkaldu, mahaia jaso eta garbitze-lanak egin dituztela egiaztatu ondoren.
- 5.2.4. Ikastetxe barruan gelditzen diren ikasleak lasai eta bare daudela kontrolatzea.
- 5.2.5. Ikasleak ikastetxeko esparruaren barruan mantentzea, beraien arteko harreman ona eta segurtasuna zainduz.
- 5.2.6. Gertatu diren gorabehera guztiak **Jangelako Egunerokoan** jasotzea.

6. **Elkarrekin bazkaltzen dutenen betebeharrak:**

- 6.1. Sukaldeko langileak eta gainerako mahaikide guztiak errespetatuko dituzte.
- 6.2. Ikasleak, eraikin nagusitik ateratakoan, zuzenean joango dira "Pio Baroja" eraikineri, bidean gelditu gabe.

6.3. **Jangela barruan:**

- 6.3.1. Ikasle bakoitzak bere tokia izango du eta, ahal dela, ikasturte osoan toki berean eseriko da.
- 6.3.2. Bazkaltiar guztiak alde aurretik zein den dakiten menu bera jango dute. Ikasleren batek dieta berezia behar izanez gero, prestatu egingo zaio. Horretarako, dagokion osasun agiria (medikuaren ziurtagiria) aurkeztu, eta aurretik abisatu beharko du.
- 6.3.3. Jangelara bazkaltzera joan behar da, eta, ahal bada, giro lasaian gustura egotera:
 - 6.3.3.1. Garaiz iritsi behar da.
 - 6.3.3.2. Txukun eta garbi, eta ordenari jarraituz sartu behar da.
 - 6.3.3.3. Jangelako langileek esaten dutena bertako zerbitzua hobetzeko da, eta, ondorioz, haiek esandakoa kontuan hartuko da.
 - 6.3.3.4. Jangelako langileekin eta beste gainerako jankideekin hitz egin behar denean, errespetu osoz egingo da.
 - 6.3.3.5. Modu egokian bazkalduko da, betiere postura egokia mantenduz eta bazkaltzen ari diren gainerakoei oztoporik egin gabe.
 - 6.3.3.6. Ez da zaratarik aterako, ahotsa nabarmen altxatu gabe hitz egingo da, eta tentuz neurtuko dira hitzak.
 - 6.3.3.7. Janariari zor zaion errespetuagatik, ez da jakiekin jolastuko.
 - 6.3.3.8. Jangelako tresneria-eta behar bezala zainduko dira.
 - 6.3.3.9. Eskaintzen den janaria jaten ahalegindu behar da.
 - 6.3.3.10. Ez da hartuko menuz kanpo dagoen janari nahiz edaririk.



6.3.3.11. Ezin dira mahai gainean eduki jangelakoak ez diren gauzak (sakelako telefonoa, MP3a, MP4a, liburuak ...)

6.3.4. Bazkaldu ondoren, bazkarian erabili diren tresnak eta soberan geratu den janaria jangelako langileek esango duten eran jasoko dira.

6.3.5. Mahai bakoitzean, mahai horren garbitasunaz arduratuko den lagun bat izendatuko da egunero. Dagokion lana modu txukun eta egokian egin beharko du.

6.3.6. Bazkaldu ondoren, jangelako zaintzaileek kanpora ateratzeko baimena eman arte itxarongo da.

6.3.7. Ordenari jarraituz eta modu egokian irten behar da jangelatik.

6.3.8. Ezin da inola ere janaririk atera jangelatik kanpora.

6.4. Jangelatik irten ondoren:

6.4.1. Hesiak mugatzen duen Institutuaren esparrutik kanpo ezin da atera.

6.4.2. Eraikin nagusira joan behar duten ikasleek horretarako baimena eman arte itxarongo dute, eta lagunduko dien monitorearen esanetara jarriko dira.

6.4.3. Ikasleak patioan edo zaintzaileek esaten dieten tokian egongo dira.

6.4.4. Ez da egingo norberaren nahiz kideen osasuna arriskuan jar dezaketen joko nahiz jolas arriskutsurik.

6.4.5. Lagunekin izan beharreko tratuan, saihestu egingo dira irainak, erasoak, eta indarkeria mota guztiak.

6.4.6. Guztiei zor zaien errespetua babestearren, ez da onartuko lotsarik gabeko portaerarik.

6.4.7. Ikastetxea garbi mantendu behar da, horretarako dauden paperontziak, erabiliz.

6.4.8. Atezaindegian dagoen baloia eskatzen duen ikaslea arduratuko da hori itzultzeaz.

7. Jangelako ordutegian arazoren bat sortzen bada, ikaslea bertako zaintzaileekin jarriko da harremanetan.

8. **Barne arategi hau ez betetzeak** ondorioak ekarriko ditu, eta zaintzaileek beharrezko neurriak hartuko dituzte. Arazo horien berri emango da horretarako dagoen **Jangelako Gorabeheren Egunean**.

8.1. Arautegi honen aurka doazen portaera guztiak jangelako zaintzaileek zuzenduko dituzte.



- 8.1.1. Ikasleak ez badu bere portaera aldatzen, **portaera desagokitzat, bizikidetzaren aurkako portaeratzat, edo bizikidetzaren modu larrian kaltetzen duen portaeratzat** hartuko da, betiere larritasun maila kontuan izanik.
- 8.1.2. Portaera horien berri emango zaie **Ikasketaburuari** eta **Tutoreari**.
- 8.1.3. Hutsegite horien larritasun maila kontuan izanik, dagokion zigorra ezarriko da. Zigor hori izan daiteke **bi, bost** edo **hamar** egunez jangelara joan gabe egotera behartzea.
- 8.1.4. Ikasle batek huts egite bera behin eta berriro egiten badu, jangelatik behin betiko kanporatua izango da.
- 8.1.5. Kasu batzuetan, ordezeko zeregin batzuk egin ahal izango dira zigor horien ordeztuz:
 - 8.1.5.1. Huts egiteak eragindako kaltea edo galera berreskuratu edo konpontzeko.
 - 8.1.5.2. Edo/Eta burututako huts egiteaz eta aurrerantzean saihesteko erari buruzko hausnarketa eragiteko.
- 8.2. Jangelako arduradunak zigorra merezi duten portaerei buruzko informazioa emango die dagokien gurasoei.
- 8.3. Ikasle bat jangelara ez bada joaten, justifikatu egin beharko du ez agertze hori. Arrazoi bat edo beste dela medio (sendagilearengana joan beharra, txangoa...) jangelara ez dela joango aldeztatik dakien ikasleak horren berri emango dio jangelako arduradunari. Hilabete batean, Justifikatu gabeko ez etortzeak **bost** baino gehiago direnean, zerbitzutik kanpo geratuko da ikaslea.
9. Ezarrita dauden epeen barruan ordainduko du ikaslearen familiak dagokion **kuota**.
 - 9.1. Bazkaltzeko aukeratuta dauden asteko egunak finkoak dira eta ezin dira aldatu baten nahiaren arabera.
 - 9.2. Izena emana ez duen ikasleren batek noizbehinka jangela zerbitzua erabili nahi badu, bi egun lehenago jakinaraziko dio jangelako arduradunari.
 - 9.3. **Kuotak banku helbideratzearen bidez kobratuko dira.**
 - 9.3.1. Urte guztiari dagokion dirua, 8 kuota berdinetan kobratuko da. Kuota bakoitzaren zenbatekoa kalkulatzeko, urte guztiko egun kopurua hartzen da kontuan, (zenbat egunetan erabiltzen duen jantokia, eta baita, irailean eta ekainean etortzen den edo ez).
 - 9.3.2. Familia guztiek jasoko dituzte 8 erreziboak, iraila eta ekainean erabili edo ez.
 - 9.3.3. Aurreko ikasturtean, beka jaso zenutenei, printzipioz ez zaizue kuotarik pasatuko. Dena den, gogorarazten dizuegu, aurtengo ikasturterako, eskaera egin behar duzuela, eta hau, ezeztatu ezker, jakinarazten dizuegu, kuotak kobratuko



zaizkizuela. Jangelako diru laguntza eskatzen duten ikasle guztiek jakin behar dute diru hori Institutuko kontu korrontean sartuko dela.

9.3.4. Jangela erabiltzen duten ikasleei kuota hilaren lehen egunetan kobratuko zaie (1etik 5era bitartean).

Ikasturtean zehar jardun eteneko egunetako % 80an jangela zerbitzua erabiltzen duten ikasleak ohiko erabiltzailetzat hartuko dira.

9.4. Ikasturtean zehar jangela erabiltzen duen ikasle batek baja eskatzen badu, hilabetea bukatu baino lehen jakinarazi beharko du, hurrengo hilabeteko otorduei dagokien diru kopurua ez ordaintzeko.

9.5. Eskatu eta ondoren onartu zaion bekaren administrazioa Institutuari baimendu ez dion familiak edozein hileroko kuota ez ordaintzeak jangelako lekua erabiltzeko eskubidea galtzea ekarriko du.